

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Jaberik gabeko zaldien enkantea

Idazki honen bidez, udalerri honetan aurkitutako hiru zaldiren enkantea iragartzen da. Zaldiek ez dute identifikaziorik, eta haien titularra den inor ez da agertu.

Enkantean jarriko diren animalien ezaugarriak:

Animaliak: zaldiak.

Sexua: arrak.

Arraza: herrialdekoa, edo mestizoa.

Haragitarako gaitasuna.

Adina: bi urte, gutxi gorabehera.

Kontsumorako desagokia.

Animaliak, pasaportearekin batera, esleipendunari emango zaio, esleipendunaren izenean identifikatutak eta erregistratutak.

Interesdunen betebeharrak:

Interesdunek zaldi-espezierako REGA kode aktiboa duen ustiategi baten titularrak izan beharko dute.

Irteera-prezioa: 700,00 euro, interesdunek gorantz hobetu beharko dutena.

Eskaintzak aurkezteko modua eta epea: eskaintzak gutun-azal itxian aurkeztuko dira Barrundiako Udalaren bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara, hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Kontratazio-mahaia udalaren egituraren eratu dago. ASGAEQUINO elkarteko presidentea gonbidatuko da.

Ozaetan, 2026ko irailaren 9an

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA